



Euforia

1 Begiratu Emoziotegiko 72-73. orrialdeetako irudiari, eta erantzun galderei.

- Zergatik uste duzu daudela hain pozik animaliak?

- Zer uste duzu ari direla ospatzen?

2 Zer animalia agertzen dira Emoziotegiko 72-73. orrialdeetako irudian? Azpimarratu haien izenak.

loroa tukana hipopotamoa tapirra lehoia tximua

elefantea flamenkoa okapia jirafa tigrea koartza

3 Marraztu beste bi animalia festan.



4 Irakurri Emoziotegiko 72. orrialdeko testua, eta idatzi **E (egia)** edo **G (gezurra)**, dagokionaren arabera.

- Euforia indarra eta energia ematen dituen elikagai bat da.
- Euforiak une txarrei aurre egiten laguntzen dizu.
- Euforiko zaudenean oso gaizki sentitzen zara.
- Euforiari esker, zailtasun oro gainditzen duzu.
- Euforiak gauzak baikor ikusten laguntzen dizu.

5 Lotu hitz bakoitza bere esanahiarekin.

- zoritxar Zorigaitzoko egoera.
- ongizate Lortzen zaila den helburua.
- erronka Egoera onean dagoen norbaiten egoera.

6 Orain, osatu esaldi hauek aurreko ariketako hitzekin.

- Atzo autobusak nire parean alde egin zuen, maleta ahaztu zitzaidan, okerreko geltokian jaitsi nintzen... eta diru-zorroa lapurtu zidaten. Era guztietako _____ jasan nituen.
- Inarrek _____ eskolako judo-txapelketa irabazteko _____ jarri dio bere buruari. Zaila da, baina litekeena da lortzea.
- Mendian hotza pasatu ostean, Naroak arropa lehorra jantzi zuen, te bero bat hartu zuen, gaileta batzuk jan zituen eta _____ galanta sentitu zuen.

7 Irakurri, eta marraztu edalontzia.

Kontuz! Urak gainezka egin du edalontzian.

- Zer esan du urak edalontzian gainezka egiteak?
 - Ura edalontziaren ertzeraino iristen dela.
 - Urak edalontzia hautsi duela.
 - Urak edalontziaren ertzak gainditu dituela eta isuri egin dela.
- Zer esan nahi du euforia energiak gainezka egitea dela dioen esapideak?
 - Izan dezakezuna baino energia gehiago duzula.
 - Ezin duzula kontrolatu duzun energia.
 - Ez dakizula neurtzen zenbat energia duzun.



8 Idatzi esaldi bakoitzaren azpian dagokion adjektiboa.

ezkorra

baikorra

- Nereak beti ikusten du gauzen alde positiboa. Euria hasten badu, hala esaten du: "Irtengo da berriz eguzkia".

Nerea _____ da.

- Ainhoak beti ikusten du gauzen alde negatiboa. Euria hasten badu, hala pentsatzen du: "Inoiz ez dugu eguzkia ikusten. Hau pena".

Ainhoa _____ da.

9 Zeure burua ezkortzat ala baikortzat duzu? Eman adibide bat.

10

Irakurri egoera hau, eta egin gogoeta galderei erantzuteko.

Gorka eta Miren baltsa bat egiten ari dira birziklatutako materialekin. Plastikozko botilak erabiltzen ari dira baltsa hondoratu ez dadin, eta egurrezko oinarri bat jarriko diote gero. Denbora asko daramate lan horretan, eta ziur daude ondo irtengo zaiela. Azkenean, uretara bota dute.

- Lehenengo zailtasuna izan da botilak itsasteko erabili duten zinta askatu egin dela ura ukitzean. Gorkak **euforiaz** erreakzionatu du. Markatu haren erantzuna.

Kontxo! Bada, ez dabil ondo; hau amorrua!

Berdin dio! Kolaz itsatsiko dugu!

- Geroxeago, Miren baltsan igotzen saiatu da, baina hura hondoratu egin da alde batetik. Gorkak euforiko jarraitzen du. Zer dio?

Flotatzeko oinarria handitu behar dugu!

Kendu, Miren, baltsa honek ez du inoiz flotatuko.

- Nola erreakzionatu du Gorkak? Markatu.

Berehala etsi du.

Ez du etsi.

Baikor agertu da.

Errealista agertu da.

11

Hausnartu, eta idatzi **euforiko** sentitzen zarenean esaten dituzun gauzak.

12 Zer esaten dute Emoziotegiko 72-73. orrialdeetako irudiko pertsonaiek? Idatzi.



Two horizontal lines for writing inside an orange speech bubble.

Two horizontal lines for writing inside a green speech bubble.



Two horizontal lines for writing inside an orange speech bubble.

